



# Eguberrietako tailerrak 2021

## Jostariak 3–6 urte

Gabonak aprobetxatuko ditugu asko jolasteko eta ondo pasatzeko. Tailer eta jarduera pila bat egingo ditugu lankidetzan eta elkarlanean ikasteko. Imajinatu ere egin dezakegu, gure sormena eta fantasia aske utzita.

### Jarduerak

- Lankidetzako jokoak
- Jolas eta jarduerak kanpoko jolastokian
- Adierazpen plastikako, antzerkiko, eskulaneko eta esperimentazioko tailerrak

**Nori zuzendua** 2016 eta 2018 bitartean jaiotako haurrei

**Taldeak** gehienez ere 7 haur begirale bakoitzeko

**Sartzeko ordua** 8:00 h. – 9:30 h.

Eguneko tarifak	1-2 egun	3-5 egun	5 egun edo gehiago
13.30ak arte	23 € / egun	20 € / egun	19 € / egun
14.30ak arte	25 € / egun	22 € / egun	21 € / egun
14.30ak arte*	31 € / egun	28 € / egun	27 € / egun
15.30ak arte*	33 € / egun	30 € / egun	29 € / egun
16.00ak arte*	34 € / egun	31 € / egun	30 € / egun

\*Jangela barre

### Nola lortuko dugu?

Egun guztiak bereziak eta ezberdinak izango dira. Izan ere, Eguberriak ilusioz betetako egunak dira: Olentzero dator, senideekin elkartuko gara, urte berri bati ongi etorria emango diogu. Tailerren bidez, Eguberrietako gai bat deskubritu eta imajinatuko dugu egunero.

Uff!! jolasez eta jardueraz betetako egun ugari dugu aurretik!!!

### Non?

Hotza egin arren, eta euririk ari ez badu, kanpora irtengo gara ahal dugun guztietan. Oso gustuko dugu kanpoan jolastea!  
Baina, Lorekan goxo-goxo egotea atsegin dugu ere: tailerrak, jolasak...

### ¿Qué hay que llevar?

Hamaiketakoa  
Kanpoko ekintzetarako  
DBus Txartela (5 urte baino gehiago)  
Galtzerdi irristagaitzak

### Eta oroitzenik izango al dut?

Argazkiak gordetzeko, gurasoekin partekatzeko edota lagunekin une polit horiek gogoratu ahal izateko sarbidea emango digute.

## IZENA EMATEKO FITXA

### HAURRAREN DATUAK

Izen-abizenak ..... Jaioteguna .....

Alergiak edo intolerantziak .....

### KONTAKTURAKO DATUAK

Aitaren / amaren izena .....

Telefonoa ..... Posta elektronikoa .....

Kontu Korronte zk. ....

Titularraren izena .....

### DATA ERRESERBAK

Plaza erreserbatu nahi den egunetan bete:

	ABENDUA						URTARRILA			
	21	22	23	27	28	29	30	03	04	05
Sarrera ordua										
Irteera ordua										
Katering bai/ez										

### OHARRAK:

## ERRESERBARAKO IZAPIDEAK

Abenduak 7 arte plaza gordetzen da. Data horretatik aurrera erreserba berriak onartuko dira libre gelditzen diren plazan arabera

30 euroko ekarpena, hauraren izen-abizenak adieraziz.

Kontu-zenbakia: 2095 5005 98 1063071533

Titularra: Soluciones Loreka SL

Izena emateko fitxa, diru-sarreraren ziurtagiria eta baimen-ordria sinatuta posta elektronikoz ([haureskola@loreka.com](mailto:haureskola@loreka.com)), faxez (943317099) edo posta arruntaz bidali.

Fakturazioa eta kobrantza (banku-helbideratze bidez) ondorengo datetan burutuko da: abenduaren 21ean egindako erreserbatan.

## ERRESERBAKO ZEHAZPENAK

Izena emateak ezeztatzeko, gutxienez 15 egun lehenago egin ahal izango da. Horrela egin ezean, ez da erreserbarako jarritako zenbatekoa itzuliko.

Datak aldatu nahi izanez gero, dagoen plaza-kopuruaren arabera egin ahal izango da.

Itzulketak: ez da itzulketarik egingo asistentzia faltagatik, gaixotasunagatik (Covid barne) edo berrogeialdiak kontaktu zuzenagatik erreserba osotasunean edo partzialki bertan behera uzten baduzue. Egindako erreserbaren arabera ordainduko da.

Lorekan positibo kasu bat egotearen ondorioz jarduera denboraldi batetan geldituko balitz eragindako dataren tarifaren %50a bueltatuko da. Eusko Jaurlaritzak jarduera guztiz moztuko balu disfrutatu gabeko egunen %100a bueltatuko da.

## BAIMENAK

Nik, ..... jaun/andreak, .....

NAN zenbakia duenak, eta: ..... Ikaslearen aita/ama edo tutore naizenak, Lorekari (Soluciones Loreka SL) baimena ematen diot:

1. Nire seme-alaba pentsatutako eskursioetara eramatea.
2. Irteeretan, nire seme-alaba hurrengo pertsonak jasoko dute:

.....

3. Sukarra izan ezkerro, nire seme-alabari hurrengo botika eman:

Antitérmico	Dosia	Antitérmico	Dosia
APIRETAL		DALSY	

4. Larrialdiren batean arazoiren batengatik familiarekin harremanetan jartzerik izango ez bagenu LOREKA baimena du gure seme-alaba hurbilen dagoen osasen zentrura eramateko.

## IRUDIEN TRATAMENDUA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

LOREKAK jakinarazi nahi dizu burututako ekintza desberdinetan argazkiak eta bideoak egiteko aukera dagoela eta adingabeak, bai bakarka bai taldean, azaldu daitezkeela. LOREKAK material audiobisual hau inskribatutako familien artean partekatu dezake, euren seme-alaben egunerokotasunaren berri emateko asmoarekin. Erabiltzaileak ezingo du LOREKAK emandako material hau zabaldu.

LOREKAK ez du ardura administratiboa edo penala izango beste hirugarren pertsonak argazki edo bideo horiekin egindako erabilpenaren ondorioz. Interesdunak baimen zehatza ematen dio LOREKARI bere seme-alaben datu pertsonalak tratatzeko, honako helburu hauekin:

- Inskribatutako familien artean material audiobisuala partekatzeko eta zabaltzeko, web guneko gune pribatua erabiliz edo egokiak izan daitezke beste baliabideak erabiliz (bai paperez, bai digitalki).
- Material audiobisuala argitaratzea LOREKAK antolatutako ekintzak zabaltzeko, esate baterako, informatzeko esku-orriak, liburuxkak, iragarkiak, aurkezpenak, web gunea, sare sozialak edo LOREKAK garatutako beste baliabideren bat erabiliz (bai paperez, bai digitalki).

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, jakinarazi nahi dizugu zure datu pertsonalak SOLUCIONES LOREKA SL enpresaren fitxategietan jasoko direla eta dokumentu honen bidez zure baimena ematen duzula zure datuak tratatzeko eta komunikatzeko, honako helburu hauekin: eskatutako zerbitzuak kudeatzea, inkesta formularioak bidaltzea (erantzuteko betebeharririk gabe), partaideen irudiak LOREKAREN web gunean eta sare sozialetan argitaratzea antolatutako ekintzak zabaltzeko eta bere jarduerari legez dagozkion funtzio guztiak burutzeko. Era berean, zure intereseko izan daitekeen LOREKAK eskainitako produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa bidaltzeko erabiliko dira.

Informazio hau jaso nahi ez baduzu, marka jarri hemen o

Interesdunaren ardura izango da emandako datuen zehaztasuna, zuzentasuna eta egiazkotasuna. Erabiltzaileak ezingo du erabili hirugarrenen datu pertsonalik, euren aurretiko baimenik gabe.

Zure datuak ikustea, zuzentzea eta ezereztea eska dezakezu, baita tratamenduari aurka egitea ere. Era berean, emandako baimena edonoiz ezeztatu dezakezu, baita gai honi buruzko beste eskariren bat egin ere. Horretarako, idatzi bat bidali behar duzu helbide honetara: Soluciones Loreka SL, Portuetxe 23A, 1-5 Lokala, CEMEI Eraikina – Igara 20018, Donostia (Gipuzkoa), edo posta elektronikoko honen bitartez: [lop@loreka.com](mailto:lop@loreka.com). Eskerarekin batera, interesdunaren N.A.N. edo baliokide den beste agiriren kopia bidali beharko da. Zure eskariari emandako erabakiarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, kontrol aginte eskudunera jo dezakezu, kasu honetan, Datuak Babesteko Bulegoa ([www.agpd.es](http://www.agpd.es)).

## DATA ETA SINADURA